

BALIO PROPOSAMENA

Denbora luzez pentsatzen egon ondoren, gure produktuak zailtasunak dituzten pertsonentzat zuzendua izatea erabaki dugu. Beraz, CIP-a kasuan zentratu gara eta gaixo hauentzat jateko tresna berezi batzuk egitea/martxan jartzea hartu dugu helburu bezala.

Produktu honen bitartez CIP-a duten pertsoneri gauzak erraztu nahi dizkiegu. Adibidez, pertsona hauek ez dakitenez jaten dutena oso beroa ala hotza dagoen, horretaz koturatu ahal izateko tresnak eskainiko dizkiegu. Honek ez du haien gaixotasuna sendatuko, baina haien bizitza hobetzeko hondar ale bat izango da.

Hau kontuan izanda, argi dago produktu hau bezero berezientzat zuzendua dagoela, hori dela eta, beti egongo da, nolabait, produktu hau erosten duen norbait: senide batentzat, lagun batentzat edota norberarentzat. Produktu hau eraginkorra da, oso. Beraz, hau aurrera ateratzeko, enpresa bezala, hoberena beste enpresa batzuekin aliantza egitea da eta poliki-poliki gure produktua gainerako lurraldeetara zabaldu.

Normala den bezala sortutako produktu berezi hauek jateko tresna normalak baino prezio altuagoa izango dute, haien sorkuntzarako prozesu konplexuetatik pasa behar izan dutelako. Gainera, zerbait berezia da, ez da "normaltasun" taldean sailkatzen.